



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSARAKO OHARRA

19/01/02

### **Gernikako Batzarretxeak Europako 30.000 bisitarien kopurua gainditu dau lehenengo aldiz 2018an**

Bizkaiko Batzarraren egoitzak berriro gainditu du 150.000 bisitarien kopurua

Gernikako Batzarretxeak gero eta interes handiagoa eragiten dau Europako bisitarien artean. 2018ko turismoaren ganeko datuek erakusten dabenez, Bizkaiko Batzarren ondarezko enblemak lehen aldiz lortu dau Europako 30.000 turista baino gehiago erakartea, 30.713 persona, hain zuzen be. Zifra hori, urte honetan izandako bisitari kopuru osoaren %20,25 da, guztira, Gernikako Batzarretxeak, bost kontinenteetatik etorritako 151.638 personari zabaldu deutseez bere atak.

Gernikako Batzarretxeko sarrera kopurua nabarmena izan zan, batez be, udako hilebeteetan, eta bisitari gehieneko hilebetea abuztua izan zan, 27.489 bisitarigaz.

Europako panoramaren barruan, aurton %10,34ko igoerea ikusi da Frantziatik etorritako bisita kopuruan; guztira, ondoan daukagun herrialdeko 12.639 persona etorri dira Batzarretxera, 2017an erregistrautako 11.332kaz alderatuta. Bere atzean Alemania (5.131), Ingalaterra (2.545) eta Italia (2.148) datoz. Horrez gain, azpimarragarria da Estatu Batuetatik (5.502), Japoniatik (1.641) eta Argentinatik (1.558) etorritako bisitari kopurua.

Barrero be, Estatu barruko turismoa da bidaiari gehien ekarri dituana, erregistrautako bisitari guztien %49,74gaz. Urtariletik abendura Estadutik Batzarretxera hurbildu ziran 75.431 personetatik, 16.687 Kataluniatik etorri ziran; 12.735 Madrilgo erkidegotik; eta 11.667 Andaluziatik.

## SETIK 1 EUSKAL HERRITIK DATOR

Gernikako Arbola enblematikoak atsedean hartzen dauen lekua ezinbesteko geralekua da Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik etorritako turista askorentzat. Lekuak daukan garrantzi historikoak eta aurton, Ondarearen ganeko Europar Jardunaldien barruan, Batzar Nagusiek emakumeek bete izan daberen lekua erakustera zuzendutako kultur proposamenek bultzatuta, 2018an Euskal Herriko 32.880 bisitari izan ditu Gernikako egoitzak.

## ENKARTERRIKO MUSEOA

2018an zehar, Enkarterri Museoa aurrera eroandako erakusketa eta ikerketa lanak, erakusketa iraunkorrari eta aldi baterako erakusketei jagokenez, eta Abellanedako Batzar Nagusien egoitzak bisitari asko erakarri ditue.

Urte honetan zehar, Abellanedako egoitzak 12.913 bisitari jaso ditu, igaz baino %5 gehiago, *“Enkarterri 1937. Gerra Zibilaren azken hilabeteak Euskadin”* erakusketa

arrakastatsua eta erakusketa horren inguruan antolatu diran jarduerak jaso daben partaidetza altuaren ondorioz, batez be, eskainitako leku guztiak bete egin dira eta.

Ikasleei zuzendutako tailerrei jagokenez, lurraldeko ikastetxeen partaidetza altuagaz jarraitu da, 8.700 partaide jaso diralako. Irakaskuntza arloko jarduerak egiteko egozan egunen %100 bete da. 2018ko irakaskuntza arloko eskaintzea ***Enkarterri 1937. Gerra baten oroitzapenak*** jardureagaz osatu da.

Urtea, familiei zuzendutako Gabonetako jarduerakaz amaitzen da. Aurton, Erdi Aroa genero ikuspegitik ezagutzera eroan gaitue. Jarduera horrek be eskainitako plaza guztiak bete ditu.

Norbanako bisitarien jatorriari jagokenez: %52 Bizkaikoak dira, %18 Euskal Herriko ganerako lurraldetakoak, %16 Estaduko beste Autonomia Erkidego batzuetakoak eta %14 Europako eta munduko ganerako lekuetakoak. Holan, bisitari atzerritarren kopurua bikoiztu egin dala azpimarratu behar da.

NOTA DE PRENSA

02/01/19

## **La Casa de Juntas de Gernika supera por primera vez la barrera de los 30.000 visitantes europeos en 2018**

La sede del Parlamento de Bizkaia vuelve a superar la barrera de los 150.000 visitantes

La Casa de Juntas de Gernika cada año despierta mayor interés entre las y los visitantes europeos. Según reflejan los datos turísticos registrados a lo largo de 2018, el emblema patrimonial del Parlamento de Bizkaia ha logrado atraer por primera vez a más de 30.000 turistas europeos, concretamente a 30.713 personas. Esta cifra representa el 20,25% del total alcanzado este año; en total la Casa de Juntas de Gernika ha abierto sus puertas este año a 151.638 personas provenientes de los cinco continentes.

El cómputo de entradas en la sede parlamentaria vizcaína destacó especialmente durante los meses estivales, alcanzando su pico más alto en agosto, con 27.489 visitantes.

Dentro del panorama europeo, durante este año se ha percibido un incremento de 10,34% en el número de visitas provenientes de Francia; en total han recalado en la Casa de Juntas 12.639 personas del país vecino, frente a las 11.332 registradas en 2017. Le siguen por detrás Alemania (5.131), Inglaterra (2.545) e Italia (2.148). Asimismo destacan las visitas procedentes de Estados Unidos (5.502), Japón (1.641) y Argentina (1.558).

Nuevamente el turismo estatal vuelve a destacar como principal fuente de turismo con un 49,74% del total registrado. De las 75.431 personas que desde enero a diciembre se acercaron a la Casa de Juntas, 16.687 lo hicieron desde Cataluña; 12.735 desde la Comunidad de Madrid; y 11.677 desde Andalucía.

### **1 DE CADA 5 PROVIENEN DE EUSKAL HERRIA**

El lugar en el que descansa el emblemático Árbol de Gernika sigue siendo parada obligatoria para numerosos turistas provenientes de los siete territorios de Euskal Herria. Impulsados por el cariz histórico del lugar, así como por las propuestas culturales dirigidas a visibilizar el papel de las mujeres que este año han ofertado las Juntas Generales en el marco de las Jornadas Europeas del Patrimonio, en 2018 un total de 33.234 visitantes han recalado en la sede de la villa foral.

### **MUSEO DE LAS ENCARTACIONES**

Durante el 2018 la labor expositiva y de investigación que realiza el Museo de Enkarterri tanto con su exhibición permanente como con las temporales y la sede de Juntas Generales de Abellaneda han vuelto a atraer numerosos visitantes.

A lo largo de este año, el centro de Abellaneda recibió la visita de 12.913 personas, sufriendo aumento del 5% respecto al año pasado, derivado de la exitosa exposición *Enkarterri 1937: los últimos días de la guerra civil en Euskadi* y de la alta participación en las actividades relacionadas con dicha exposición en las que se han llenado el total de las plazas ofertadas.

Respecto a los talleres escolares se mantiene la alta participación de los centros escolares del territorio con un total de 8.700 participantes, habiéndose llenado el 100% de los días disponibles para la realización de las diferentes actividades didácticas. La oferta didáctica de este 2018 se ha completado con la actividad ***Encartaciones 1937: Memorias de una guerra***.

El año concluye con actividades navideñas para familias, que en esta edición servirán para redescubrir la Edad Media desde una perspectiva de género. La actividad ha logrado completar todas las plazas ofertadas.

En cuanto a la procedencia de los visitantes individuales: el 52% son de Bizkaia, el 18% del resto de territorios de Euskal Herria, el 16 % de las diferentes Comunidades Autónomas del Estado y un 14% de Europa y resto del mundo. En este sentido cabe destacar que el número de visitantes extranjeros se ha duplicado.